

## BESTELAKO XEDAPENAK

### HEZKUNTZA SAILA

## 721

*EBAZPENA, 2019ko otsailaren 5ekoa, Langileak Kudeatzeko zuzendariarena, zeinaren bidez iragartzen baita zozketatu egingo dela 2019-2020 ikasturtean ordezkogaiak kudeatzeko prozesuan –baita urtean zehar deitzen den edozein hautatze-prozesutan ere– alfabeto-hurrenkera zehaztuko duen letra.*

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2012ko abuztuaren 27ko Aginduak ezarritzen duenez (agindu haren bidez onartu zen Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko herri-ikastetxeetan egon daitezkeen aldi baterako irakasleen beharrak estaltzeko hautagaien zerrenda kudeatzeko araudia), abizenen eta izenen arabera hurrenkera alfabetikoak ebatziko ditu berdinketa kasuak, eta urtero egingo den zozketa baten bidez erabakiko da zer letratetik hasi.

Halaber, letra horrek zehaztuko du zer hurrenkeraren arabera aukeratuko duten lanpostua izangoaiek, hau da, zozketa horretan ateratzen den letrak zehaztuko du nor izango den lehen izangaia ikasturtean zehar deitu daitezkeen edozein hautatze-prozesutarako.

Horregatik guztiagatik, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Iragartzea 2019ko otsailaren 14an 10:00etan zozketa egingo dela Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzan (Donostia kalea 1, Vitoria-Gasteiz) zehazteko zer letra erabiliko den irizpide moduan berdinketa-kasuetan 2019-2020 ikasturtean, letra horrek zehaztuko du-eta nork zer hurrenkera izango duen izangaien zerrendan. Era berean, zozketaren emaitzak zehaztuko du zer hurrenkeratan parte hartuko duten izangaiek ikasturtean egiten den beste edozein hautaketa-prozesutan. Horrela, bada, zozketa horretan ateratzen den letrak zehaztuko du nor izango den lehenengoa, abizenen eta izenaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko otsailaren 5a.

Langileak Kudeatzeko zuzendaria,  
JON KARLOS AGUIRRE HUERGA.